

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. MAILAKO DIAGNOSTIKOAREN BARNE EBALUAZIOA

EMAITZEN ANALISIA ETA TXOSTENAK

Txostenak sortzeko informatika aplikazioa jarriko du ikastetxeen eskura Hezkuntza Sailak. Informatika aplikazio hori erabiltzea erabakitzen duten ikastetxeek ondorengo arauak bete beharko dituzte:

- Hezkuntza administrazioak proposatutako errendimenduko probak osotasunez erabiltzea.
- Proba horiek ISEI-IVEIk proposatutako irizpideak eta protokoloak jarraituz aplikatu eta zuzentzea.
- Probak aplikatzea eta zuzentzea emandako epeetan.
- 2017ko maiatzaen 24a baino lehen, ebaluazio honetan esku hartu duten ikasle guztien emaitzak txostenak sortzeko informatika aplikazioan sartzea.
- Egun horretatik aurrera, banakako emaitzez gain ebaluatutako konpetentzia guztien txostena eskuratu ahal izango du ikastetxeak. Ebaluatzen diren eta banakako txostenetan azaltzen diren konpetentzietan lortutako emaitzak hiru gaitasun mailetan antolatuta aurkeztuko dira: **hasierakoa, bitartekoa eta aurreratua**. Ikasle batek maila bakoitzean planteatzen zaizkion egoerak ebazteko behar dituen ezagutzek, trebetasunek eta gaitasunek zehazten dute maila horietako bakoitza. Ikasle bat maila jakin batean dagoenean, maila horri eta aurrekoei dagozkien trebetasunetan gai dela esan daiteke.
- Aurreko Diagnostiko Ebaluazioetan bezala, ikastetxearentzako eta hezkuntza komunitaterako interesgarriak diren datuak eskuratu ahal izango dira, betiere konfidentziasunetik zorroztzenaren menpe.

Txostenei eta emaitzen azterketari buruzko informazio guztia, errendimenduko proben materialak Lehen Hezkuntzako 3. mailako Diagnostiko Ebaluazioaren webgunean eguneratzen direnean egongo da eskuragarri.

